

## **Beñat Fernandez ‘Pelontxu’-ren motoa egongo da ikusgai Arrate Frontoian datozen egunetan**

- **Andoaindar moto-pilotu gazteak European Talent Cup txapelketan hartzen du parte gaur egun**
- **Honda NSF205R modeloko motorra uztailaren 27ra arte egongo da erakusgai**

**Andoainen, 24-07-12.-** Beñat Fernandez ‘Pelontxu’ren motorra egongo da ikusgai datozen egunetan Arrate Frontoian. Honda NSF205R modeloko motorra da erakusgai egongo dena, zehazki.

Pelontxuk, gaur egun, European Talent Cup txapelketaren zortzigarren edizioan hartzen du parte. JuniorGP txapelketako kategoria txikia da aipatu txapelketa, eta 13-17 urte bitarteko gazteak dira bertan jarduten dutenak. Mundu osoko 49 pilotuk hartzen dute parte, eta horietako bat da Pelontxu, Frando Racing VHC Team taldean. Bigarren denboraldia du txapelketa honetan.

Sanjuanetako jai egitarau barruan ere, moto erakustaldia eskaini zuen motoziklista gazteak, moto gainean duen abilezia jendeaurrian erakutsiz.

Esan bezala, txapelketan darabilen motoa astelehenetik aurrera egongo da ikusgai Arrate Frontoiko harreran, bertako ordutegian (astelehenetik ostiralera 9:00etatik 21:00etara, eta larunbatean 9:00etatik 20:00etara). Uztailaren 27ra arte egongo da ikusteko aukera.